

# ***Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako***



**Lehen Hezkuntzako hurrei zuzendutako ipuin kontaketa dramatizatua.**

**Joseba Sarrionandiaren izen bereko ipuin liburuan oinarrituta Artedrama eta Dejabu konpaniek prestatuta eskoletan emateko.**

# EGITASMOA

HIK HASI ren ekimenez 2010an argitaratu zen Joseba Sarrionandiaren *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* ipuin liburua. Inplikazioz beteriko ipuin laburrez osatuta dago liburua, pentsamendu autonomoa, dibergentea eta kritikoa ahalbidetzen duten proposamen literarioz betetako narrazioak guztiak ere. Denak ere interes pedagogiko handikoak.

## IPUIN KONTAKETEN HELBURUA

Irakasleek liburua lan-tresna gisa erabiltzeko aukera izateaz gain, ipuin kontaketa baten bidez, ipuinen lanketa sakonagoa egitea da xede nagusia. Bertan lantzen diren gaiak –“Elkarrekin bizitzen ikasi”, “Komunikatzen ikasi”, “Pentsatzen ikasi” eta batez ere “Norbera izaten ikasi”- haurrei antzerkiaren bidez modu zuzenagoan hausnartzeko aukera ematea. Ikastetxeetara antzerkia, ipuingintza eta irakur-zaletasuna lantzeak berez izan lezakeen berezko interesarekin batera.

## IDAZLEA

Joseba Sarrionandia idazle oparo eta sakonenenetakoa dugu. Poesia eta nobelagintza landu ditu baina batez ere ipuingintzan da aitzindari eta maisu. Haurrentzat eta haurrekin partekatzeko ipuinak idatzi ditu liburu honetan. Balio poetiko handiko narrazio horien bidez, aurkezten diren egoerak interpretatzera eta, horrekin, berreraikitza bultzatzen gaitu idazleak. Goatzera eta irudimenaren munduan bidaiatzera gonbidatzen gaitu berriz ere idazleak, poesiaz jantzitako bere prosaren bidez. Umorea bidelagun, errealitatea eta absurdoaren arteko mugak lauso, ipuin bakoitzean harrিতuta uzten gaitu : pentsaraztera bultzatzen gaitu.

## ANTZEZLEAK

Artedrama eta Dejabu panpin laborategia antzerkigintzan eskarmentua duten bi konpainia dira. Azken urteetan elkarrekin lan egin dute zenbait antzezlaren sorkuntzan eta orain egitasmo berri honi ekin diote. Lau aktorek hartzen dute parte bertan:

ANDER LIPUS

MIREN TIRAPU

URKO REDONDO

AINARA GURRUTXAGA



# DATU ZEHATZ ETA PRAKTIKOAK


**IZENBURUA:** *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako.*

**LAN MOTA:** 6 urtetik 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako irakurketa dramatizatua.

**IRAUPENA:** 45-50 minutu.

**NON EGITEKO:** Ikastetxeetan. Egitasmoaren izaera dela eta, garrantzia handia du guretzat espazioak, eta ikasleentzat ezaguna den espazio batean gauzatzeak. Eskola, eremu egokiena da beraz (Plastiketako gela edo ikusentzutekoena presta daiteke). Herriko liburutegia ere egokia izan daiteke (ez dira egokiak ordea gimnasio eta espazio handiak, oihartzuna izaten dutelako normalean).

**PRESTAKUNTZA:** Egokiena lehenago edo ondoren ipuinak klasean lantzea da (horretarako Hik Hasik argitaratutako proposamen didaktikoa kontsulta daiteke).



## IKUSKIZUNA, ADIN TARTEEN ARABERA:

Bi ikuskizun ezberdin prestatu dira, bi adin tarteetan banatuta:

1. Lehen Hezkuntzako LH 1, LH 2 eta LH 3ko ikasleei zuzenduta.
2. Lehen hezkuntzako LH 4, LH 5 eta LH 6ko ikasleentzat.

Adin tarte ezberdinentzat egokiagoak diren ipuinekin osatu da ikuskizun bakoitza. Kontaketa bakoitzen bi aktorek hartuko dute parte.

## **EMANALDIETARAKO BALDINTZAK**

**DATAK:** 2011ko urritik aurrera eskainiko da ipuin kontaketa Euskal Herriko ikastetxe eta liburutegitan.

**IKASLE KOPURUA:** Hurrekin gertuko harremana oinarri izango dute ipuin kontaketek, haien parte hartzea eta inplikazioa ahalbidetzeko. Hori dela eta, ez da gomendagarria talde bakoitzean 25 haur baino gehiago izatea. Lehen aipatu bezala, gela ertain bat litzateke egokiena (4m x 4m gutxienez badituena: ikastetxeko liburutegia, ikusentzuteko gela...).

## **HARREMANETARAKO ETA EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO:**

**ARTEDRAMA**

**(+34) 615 77 95 11**

**info@artedrama.com**

**www.artedrama.com**